

6 mantangorri



CO AZOKA

**LIBURUA****Izenburua:** 'Umorezko ipuintxo bat gauero'.**Testuak:** Ricard Bonmatí, Alegria Julia eta TomasEscuder. **Marrazkiak:** Oscar Saramia, Nuria Feijoo, Roger Pich eta Maria Teresa Ramos. **Itzulpena:** Maria Colera Intxausti. **Orrialde kopurua:** 384 orrialde, koloretan. **Argitaletxea:** Aizkorri.**LIBURUA****'Halloween festa'**

Urriko azken egunean, Halloween festa edo Sorgin gaua ospatzen da munduko hainbat txokotan. Haurrek ere ospatzen dute, eta mozarrotu egiten dira, aurpegitxo bat egiten dute kuia batean eta festa txiki bat antolatzen dute lagun artean. Sorgin edo mamu ahotsa jarri, eta etxez etxe ere ibiltzen dira, abesten eta gozokiak eskatzen. Zein ondo pasatzen duten Halloween egunean! Festari buruko lehen azalpenak ematen dira liburuan.

**Liesbet Slegers**  
Argitaletxea: **Ibaizabal**

**LIBURUA****'Animaliatxoen ipuin klasikoak'**

Hiru txerritxoak, Banbi, otsoa eta zazpi antxumeak... Ezagunak dituzue pertsonaia horiek, ezta? Eta baita haien istorioak ere, noski. Lau ipuin klasiko bildu, eta liburu bakar batean jaso ditu Tarttalo argitaletxeak. Hauak dira liburuko lau ipuinak: *Banbi*, *Otsoa eta zazpi antxumeak*, *Ahate-txo itsusia* eta *Hiru txerritxoak*. Marrazki ikusgarritz eta koloretsuz apaindu dituzte ipuin klasikoak. Javier Inarajarenak dira ilustrazioak.

**Javier Inaraja**  
Argitaletxea: **Tarttalo**

**Aurelio Erdozain**

AIZKORRI ARGITALETXEKO ARGITALPEN ZUZENDARIA

# «Irakurzaletasuna bultzatzen izugarri laguntzen duen tresna da umorea»

**B**itzia umorez hartea bezalakorik ez dago. Umorea beti da pizgarri, beti da pozgarri. Oheratzerakoan, umerezko ipuin bat irakurtzen edo entzuten badute haurrek, ziur amets góxoagoak izango dituztela. Gauerako umerezko istorio bat proposatzen da liburuan.

**Gauerako umerezko ipuin bat proposatzen duzue oraingoan. Zergatik?**

Osagai ezinbestekoa da umorea bizitzan, eta baita literaturan ere. Umeei are eta gehiago gustatzen zaizkie umerezko istorioak, eta, zalantza barik, irakurzaletasuna bultzatzen izugarri laguntzen duen tresna da.

**Zenbat ipuin biltzen dira?**

Orotara, 29 ipuin daude liburuan. Ipuin gehienak katalanez *rondalles* izenekoak dira, hau da, ahozko ipuinak dira, baina ukitu umoretsu

bat dute. Dena den, badira zazpiren bat beste herrialdeko batekoak direnak.

**Hiru idazleren ipuinak biltzen dira. Libururako sortu dituzte edo nonbaitetik jasoak dira?**

Berez, lehenik, solte argitaratu zituen ipuin horiek Cadi argitaletxeak, eta gero, liburu batean batu zituen guztiak. Ahozko tradizioaren biltzaileen liburuetatik hartzeta eta moldatutako ipuinak dira; beraz, ez dira libururako sortuak. Ziur ezagutzen dutela haurrek hainbat ipuin euskarazko bertsioa.

**Ipuin guztiak ez dute itxura bera, ezta?**

Ez, egia esan, oso bestelako itxura dute. Lau marrazkilariak ilustratu dituzte ipuinak. Beraz, ipuinak oso bestelakoak dira, bai testuaren aldetik, bai marrazkien aldetik.

**Norentzako ipuinak dira?**

Ipuinak guzientzat dira: zuretzat, niretzat, haurrentzat, helduentzat... Hala ere, ipuinak marrazkiz ongi horniturik eta letra tamaina handiz idatzirik daude, eta helduek haur txikiei irakurtzeko dira, edo irakurtzen hasi berri direnak eurak bakarrik irakurtzeko.

**Pixkanaka, handituz doa bilduma. Arrakasta duen seinale, ezta?**

*Ipuintxo bat gauero* bildumako bosgarren liburua da. Zalantza barik, arrakasta handiko bilduma da; lehen liburuaren (*Ipuintxo bat gauero*) 10.000 ale baino gehiago saldu baitira. Ziurrenik, liburuen prezioak (9,95 euro) eragina izan du arrakasta horretan.

**Emaitzak ikusirik, bildumak jarraipena izango al du?**

Oraindik ez dakigu, baina, ziurrenik, bildumako beste liburu bat kalera-tuko dugu datorren urtean.



NURIA FEIJOO